

Ankamotza

Ipuin sariketako
Lenengo saria



"Txikitatik ondo ikasten
dana ez da sekula aazten."
Onela esaten euskun sarritan
gure aitak. Eta egia da, nik ere
egiaztatzen dot.

Gure umezaroan ikasketak oinarrizkoegiak zira-lata, aitarekin ainbat gauza ikasten genduan, gure ingurumena ezagutu eta zaindu batez ere.

Bere lantegiko bearra txandaka izanezgero, ilearen aste bateko arratsaldeak aske ebazan eta berak atseden artu bearrean guri eskaintzen euskuzan.

Udaberriko, udako eta udagoieneko egunetan aal zan neurrian aitagaz gure inguruetako landa eta menditxoetatik ibilaldi ederrak egiten genduzan. Bai ondo ezaagutzen ebazan berak, landara sendago-
rriak, zugaitzak, basa-loreak eta abar.

Gure amari, ezina egiten jakon gugaz etortzea, lau seme-alaba izan ezkeru, beti lanpetuta egoan, orregaitik aitarekin egindako ibilaldiak berarentzat laguntza andia zan eta gu gure aitarekin poz-
pozik joaten ginan. Inguruko landetatik mota askotako loreak sortzen ziran eta gu beti batzeko prest gengoan baina aitak esaten euskun:

.-Ez umeok, orain ez batu, orain artzen badozuez zimurto, igartu eta ilko dira, euren edertasunaz inork ez dau gozatuko baina etxeratzeko orduan artzen badoquz, amari mardul eta ostotsu eroango deusoguz, bera pozuko da, loreontzi batean jarri eta etxea ere alaituko dogu. Olako arrazoiekin ikasten genduzan loreak eta landareak zaindu, ezagutu eta errespetatzea.

Inguruetako zugaitz-izenak ere ondo ikasi genduzan; Arteak, Urritzak, Intxaurreondoak, Ikon-
doak...eta igali-ondoak ez ezik, zugaitzetako motak ere ezagutarazten euskuzan.

Kopautxoak edo ogi-tartekoak joteko orduan paperak bildu, gorde eta etxera bueltatzera irakatsi euskun, aldi oretan mendietan zein zelaietan saramaontzirik ez egoan eta.

Bai ederrak ziran arratsalde areek! Loreak, landareak, zugaitzak, txoriak eta abar ezagutzen. Ezagutu bakarrik ez, arretaz zaintzen ere irakasten euskun aitak; edozein igali eskuratzeko orduan, zelan artu, arbolari minik ez egiteko eta jango dozuna bakarrik artu sabelkeriarik gabe.

Behin batean loalditxo baten gangozala gure aitak txori-txioka itzela entzun eban eta soinurantz urbiltzen zugaixka bateko adarretan kabi bat zintzilik eta berean txorikume bat arrapaturik txio-txioka aurkitu eban. Kontu andiaz artu eta gurengana etorri zan gure launtza eskatuz txori gaixoa zaintzeko. Txoriak oraindik ez eban bere gorputza lumaz beterik eta kabia zugaixkatik jauztean ankatxo bat apurtu eta zintzilik eban gizagaixoak.

Gure aitak musuzapi garbia atera eta bazter batetik urratuz lotura bat egin eutsen. Guk kontu andiaz baina ikaraturik txoritxoa finkatu ankatxoa erakusten eta berak maitekiro lotu egin eutsen.

Aitak, txantxangorria zala adierazten etxera eroan behar genduala esan euskun bestela bere gurasoak babesgabea ikustean kabitik kanpo aterako eutsela. Guk, oso pozik eta arretaz eroan genduan sendotu ostean askatasuna emango geutsonaz hitzematen.

Oso ondo zaindu eta elikatu geutson txoritxoa baina zoritxarrez bere anka galdu eban orregaitik Ankamotza izendatu geutson. Ala eta guzti ondo osatu eta sendotu zan.

Arratsaldero gure etxeko leioak itxita bere kaiolako atea zabalitzen genduan etxetik egaz egiteko eta egon ikasi ebanean gure aitagaz aurkitutako tokira askatasuna emoteko asmoz eroan genduan. Ordu erdi bat egon ginan altxatzen eta alperrik, berriro gurengana etortzen zan abesten. Bat-batean beste txori bat agertu eta adarretatik abesten asi zan.

Gurea bezalako txantxangorria zan eta aitearen egin orduko, berarengana abiatuz biok egazka basorantz joan ziran.

Txantxangorriren bat agertzen zan bakoitzean gurea zelakoan luzaro egoten nintzan begira eta begira baina ankamotzarik ez zan agertzen eta ez genduan berriro ikusi ez eta aaztu ere.

Orrelakoak ziran gure aitaren irakaskizunak. Abereak, inguruak, zein pertsonak zaindu eta errespetatzea zan bere ardura.

Gure aita joan jakun baina berarengandik ikasitakoa ez da alperrik galduko, gure seme-alabei naiz bilobei ere transmititu deutsegu, eurek, euren ondorengoei, ondorengoei gerokoei eta abar, irakatsiko deutseela itxarotzen dogu.

Gure ingurumenarentzako gizakion eragin ona oso garrantzitsua da.

